


nion ea ezkata batzuk ematen zizkidan baina berak ezetz erantzun zuen eta piraña batzuk bidali zituen nire kontra. Nik hil nituen ezpatarekin. Orduan, Andvarerik nire ezpata ikusi zuenean bi ezkata eman zizkidan, ni legenda bat nintzela edo horrelako zerbaite uste zuen.



Ondoren, basora itzuli nintzen eta han ordu erdi egon nintzen Elfoak bilatzen. Bat-batean, ezpata 3ausi zitzaidan eta, kolorez aldatzen hasi zen. Momentu batean Elfoak eta pertsonai guztiak ikusi ahal izan nituen hor, basoan, zutunik niri begira. Unea aprobe txatu nuen eta Elfo bati ile bat moztu nion, berak zergatik egin nuen galdetu zidan eta nik Dragoi gorriaren lepokoa nahi nuela azaldu nion. Pegaso gainean igo nintzen eta 3oan ginen.

Honen ostean, Bolkanera 3oan nintzen eta han Grifoaren agerpena itxaron genuen. Grifoak ikusi ninduen eta bere atzaparrekin eraso egin zidan baina ni ezkutuan 3arri nintzen eta talka egin genuen bata bestearen kontra. Momentu honetan, indar biziko honda bat sentitu nuen eta berak sentitzen zuena nik ere sentitu ahal nuen; berak bere arrautza lapurtu nahi nuela pentsatzen zuen. Nik ez nuela nahi bere arrautza esan nion, bi luma besterik ez nuela nahi. Orduan, bera gelditu egin zen eta hegal bat zuzendu zidan bi lumak hartzeko moduan. Hartu nituen eta eskerrak eman nizkion 3oan baino lehen.

Pertsonai siniestro horrek ni segitzen 3arraitu zuen, baina ni ez nintzen enteratu.

Geroago, Esfingearengana 3oan nintzen eta ea bi luma emango zizkidan galdetu nion. Berak baietz, baina igarkizun erraz bat asmatzen banuen.

Hau zen bere asmakizuna: "nor da lehenengo lau hankatan, gero bitan eta ondoren hirutan ibiltzen den animalia?". Nik luzaroan pentsatu nuen, logika erabiltzen ere eta, azkenean ebatzi nuen: pertsona, lehenik lau hankatan dabil, gero bi hankatan ibiltzen da eta azkenik makilaz laguntzen delako. Erantzun nuenean berak berea bete zuen eta bi luma eman zizkidan.

Bukatu nuen Edabea!. Nahastu eta zurrutada bat edan nuen. Bestea gorde nuen. Ez zuen zapore ona baina merezi zuen edatea.